



## Aspalditxoko San Pedro

**h**erri-kasketik urrintxo geratu arren, **Torreazura** be ailegau dira aldaketak. Eta saihesbide barrixa egitten danian, ezta kit auzua ezagutuko dogun. Fotografixan ikusten dan gehixena hor dago egon oraindiok, baiña imaginaziño apur bat bihar da hor agerketan diranak **San Pedroko ermittia** eta inguruak dirala igarteko. Gaur egunian, gurata be, ezin geinke nalako argazkarik atara, aurreko soruan Txintxurretaren fabrika haundixa daguelako.

San Pedroko ermittiorrek zahar famia dako. Auzuak sasoi batian eukan izena bera, **Elazarra / Lazarraga, eleiza zarraga**-tik etorrela uste euen antxiña han bizi ziranak. Balitkeke. Dana dala, egixa da 1442ra orduko aittaketan dala orduko papeletan. Ezkerreko etxetzarra Lazarragatarren sortetxe nagusixaren etxeostia da. **Lazarraga Etxe-aundi** eukan izentzat, edota, gura gurasuak esaten euen moduan, **Etxandi**. Itxura hori XVII-XVIII. gizaldixan hartuko eben, lehenago torretxe tentia zana baserri eder bihurtu zanian. Orain dala urte batzuk, beste aldaketa sakon bat euki dau, barruko aldetik batez be, bertan jatetxe dotoria jarri daue-eta.

Etxandiren ezkerretara San Pedroko kalejako etxe bat ikusi leike juxtu-juxtuan. San Pedroko fabrikako langilliendo orain dala ehun urte baiño gehixago egin zanetako bat. San Pedroko puntapaixa-fabrikia bera Etxandi eta ermittiaren artian daguen etxia izango da. Puntapaixak makiñan egindako ultze modernuak ziran eta Frantziatik ekarrittako aurrerakuntzaia zalako eukain izenori: **Puntas de Paris** berben euskal formia. Fabrikia gerra aurrian itxi otzan lanari eta, urte askuan geldik egon eta gero. bota eta etxebizitzak egin zituain bertan.

Fotografixia Olaterako kamiñotik hartuta daguela emuten dau, Aldai ingurutik. Baiña noiz? XX. gizaldixaren lehenengo hamarkadetakua izango da seguru asko, 1919-1920 bittartekua-edo. Edozein modutan 1929 aurretikua da, urte haretan obrak egin ziran-eta ermittan. Orain sarreran dakon elizpeia orduan moldautakua da.

J. E.

Fotografixia Oñatiko Udal Artiboko Argazki-fondokua da.